

FUNTSEZKO JARDUERAK

Funtsezko jarduera bezeroen bizitzak erraztu eta hauen arazoak konpontzea da. Beraz, gizarteko arazoez ohartarazi nahi izan genuen. Hori dela eta aplikazio bat egitea pentsatu genuen, urritasuna duten pertsonen egunerokotasunean janzterako orduan erraztasunak emateko, eta honetarako baliabide desberdinak eskaintzen dizkiegu.



Enpresa martxan jartzeko, lehenik eta behin Lanbide Batuak eta Gureakekin kontaktuan jarri ginen, lehen esan bezala urritasuna duten pertsonen izan ditzazketen arazoez ohartu eta lehenik inork konpondu ez duen hori konpontzeko. Hala ere, momentu oro mantenduko dugu harremana bi enpresa hauekin, sortuko zaizkigun edozein arazotan lagundu ahal ziateko, edota bertako langileekin komunikatzeko.

Aplikazioari dagokionez, software bat egiteko beharrarekin ere ikusi ginen, izan ere, aplikazioa egiteko eta lantzerako momentuan oso erabilgarria egingo zaigu. Lan ezberdinak egiterako momentuan asko lagunduko digu, kalkuluak egiterakoan edota web orrian nabegatzerakoan esaterako. Gainera gure informatikoa den Xubanek pertsonalizatu egingo digu, beraz gure beharretara egokituko da guztiz.



Aplikazio honek hainbat abantaila ditu, eta honela funtzionatzen du: hasteko, aplikazioa instalatzen duen pertsona bakoitzak kontu bat sortuko du bere izenean. Beraiei buruzko informazio gehiago lortzeko, familia edota lagunekin kontaktuan jarriko gara, eta beraien jantzien argazkiak bidaltzeaz gain, gustu eta estiloen berri emango digute. Gainera, eguneroko eguraldiaren berri ere emango diegu, eta honen arabera eguraldiari dagokion arropa jantziko dute. Astean behin, urritasuna duen pertsona batek modelo lanak egingo ditu eta tendentzia diren erropak erakutsiko ditu.

